

Eskulanak egiteko grina

Asteazkenero izango da ikastaroa ▶ 5



Etzi goizeko Tolosako XVI. Lore eta Landare Azoka koloretsuaren zain

BERDURA PLAZA ▶ Goiz osoan zehar izango da Berdura plazan, eskaintza handiarekin ▶ 2



Tolosaldeko hiru bizitegi-tako arduradunak, azokaren aurkezpenean, Azpiazu bizitegian. LEIRE MONTES

IÑIGO TERRADILLOS



Ekuadorren misiolari, han bizimodua hobetzeko

IBARRA ▶ Joxe Mari Garmendia apaizak «jendearen bizi-poza handitzea» du bere proiektuen erronka nagusia ▶ 6





ARISTEGI EZEIZA. S.L.

BAINUGELA - SUKALDEA - AZULEJOAK

AZULEJOAK - SANITARIODAK - KAMILAK - HIDROMASAJEA
SUKALDEKO ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK - MANDARAK
SALINAK - HORMA-ARMARREAK - BAINUGELAKO
OSAGARRIAK - TERRAZOIA - ARTSALITZAKO PRODUKTUA
- MARMOL ZAHARTUAK - GRES-ZOLACURA - GRES
PORZELANAKOIA - GRESOTEA

Fredua astelekeetatik ostiralera bitartean, 9:30etatik 13:00etara eta 15:30etatik 19:30era. Larazabaitan 10:30etatik 13:00etara.

Zubieta k., 13 DONOSTIA ☎ 943 45 60 01

XVI. LORE ETA LANDARE AZOKA ▶

Landarezainek
esandakoak

«Guk landareak eta loreak saldu nahi ditugu, baina erosleen etxeetan politak geratzea ere bada gure ardura», diote

I. ETXEBESTE

Gero eta hedatuagoa da loreak eta landareak merkatal zentro handietan erosteko joera. Hori uste dute Tolosaldeko hiru bizitegi-tako arduradunek, eta askotan, «hilda» egoten direla diote. «Guk landareak eta loreak saldu nahi ditugu, baina erosleen etxeetan politak geratzea ere bada gure ardura; hor ikusten da batzuen eta besteen profesionaltasuna».

Etxean loreak eta landareak izatea azken urteetan «urritzen» ari dela eta kezkatuta dira, bestalde, eskualdeko landarezainak. «Jendeak lan gutxi ematen duten landareak nahi izaten ditu». Gainera, globalizazioa «min handia» egiten ari omen zaie hemengo bizitegi-tako arduradunei. Herbeheretatik, Espainiatik... gero eta landare gehiago ekartzen dituztelako hona. Horrek ez du es-

kualdeko landarezain salmentetan bakarrik eragiten, adituen hitzetan, «plagak ere sortzen direlako askotan landareak handik eta hemendik ekarriz gero». Aurtengo negua gorria izan da, bestalde, eta elurteengatik eta izozteengatik landare asko izoztu egin dira, halabeharrez. «Ekologia osoa oreka bat da», izan ere.

Hori guztia aintzat hartuta, erosleekin zuzeneko harremana izatearen garrantzia azpimarratu dute landarezainek berriro, eta Tolosako larunbateroko azoka «aproposa» da horretarako: «Aholku eske etortzen zaigu jende asko: leku itxietarako edo irekietarako zer landare mota landatu dezaketen, zomorroak dituztenei zer tratamendu eman diezaioketen...». Denboraldiko landare eta loreak erosten ditu jendeak urtero Tolosako azoka berezian, adituek esan dutenez. Etzi ere izango dute aukera. ◀



Jose Luis Arregi, Bittori Aginaga eta Iñigo Azpiazu, Arregi, Etxexo Baserría eta Azpiazu bizitegi-tako ordezkariak, herenegun goizean, Azpiazu bizitegian, XVI. Lore eta Landare Azoka aurkezterakoan. L. MONTES

Azoka koloretsuenaren harira

08:00etan hasi eta 14:00ak arte izango da etzi XVI. Lore eta Landare Azoka Berdura plazan, eskaintza handiarekin

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako XVI. Lore eta Landare Azoka izango da larunbatean Berdura plazan, eta herenegun goizean egin zuten ekimen horren aurkezpena Tolosaldeko hiru bizitegi-tako arduradunek eta Tolosako Udaleko ordezkariak Anoetako Azpiazu bizitegian. «Urteko azoka koloretsuena bertako eta denboraldiko landare eskaintza handia goarekin izango da aruten: geranioak, alegriak, begoniak, lobeliak, krabelinak...», landarezainek zehaztu zuten.

Tolosako alkate Jokin Bildarratzen hitzetan, lore eta landare azoka berezi horren aurkezpena landareak eta loreak jaitzen diren lekuan egin nahi izan dute aurtengoan, «lorei eta landareei buruz aritzeko ez dagoelako adituen lana ezagutzea bezalakorik».

ESKAITZA ▶



LORE ETA LANDARE AZOKA

► **Ordutegia.** Larunbatean, 08:00etatik 14:00etara izango da Lore eta Landare Azoka Berdura plazan.

► **Eskaintza handia.** Lore moztua, lore-sorta naturalak, landare eta zuhaixka aromatikokoak, denboraldiko bertako landareak... izango dira, besteak beste.

Eskaintza oso zabala izateagatik eta gehien erosten den gunea dela aintzat hartuz gero Tolosako Gipuzkoan egiten den lore eta landare azoka «garrantzitsua» dela iritzita, beharrezkotzat ikusten du Bildarratzek bizitegi-tako arduradunen eta Udalaren arteko elkarlana. Izan ere, modu horretara «elkarrekin erakutsiko diegu herritarrei eta kanpotik datozenei gure herrian egiten den lana». Ildo beretik, artearekin erkartu du Tolosako alkateak bizitegi-tako arduradunen egitekoa, «elementu bizien birtartez gauza asko adierazteko gai direlako izan».

Horren harira, Tolosako azokak «oso elementu garrantzitsuak» izan direlakoan da Jokin Bildarratz, eta «egun ere hala direnez gero, etorkizunean garrantzia handikoak izaten jarraituko dutela adierazi du.



Landarezainak eta udal ordezkariak, Azpiazu bizitegiari so. L. MONTES

Tolosako udal zinegotzi Jose Miguel Gomez Elosegik dio, bestalde, hiru omendu izango direla larunbateko azokan: Tolosaldeko hiru bizitegi-tako arduradunak, eta haien eskutik azokara hurbiltzen direnek «lehen mailako informazioa» lortuko dutela esan du: landare eta lore bakoitzari dagokion temperaturaren, lur motaren eta ur kantitatearen berri, bes-

teak beste. Landarezain lana bertatik bertara ezagutzeko aukera ere izango dute erosleek larunbatean.

Prezio aldetik askotariko eskaintza izango da, halaber: lore txikiak 0,75 eurotik aurrera izango dira salgai, eta landare handiak, bi metro luzekoak, 90 euro bitarte. Baratzeko landareak ere erosi ahal izango dira, bestalde, larunbatero bezala.

ESKOLA TXIKIEN II. TOPAKETAK ▶



Eskola Txikien I. Topaketako erreleboetako proba, Berazubín, iazko martxoan. O. ESKITXABEL

Kirola, elkar ezagutza eta jai giroa, Eskola Txikien II. Topaketetan

Bihar goizean izango dira, Berazubiko estadioan; eskualdeko 11 eskolak hartuko dute parte, guztira, 180 ikasle inguru

LEIRE MONTES

Zeruari begira ari dira egunotan Tolosaldeko Eskola Txikietako ordezkariak. Izan ere, egunotako euri zaparradek zapuztu egingo lukete «ilusioz eta mimoz» prestatu duten festa. Eta ez dute halakorik gertatzerik nahi. Eskola Txikien II. Topaketa da egitekoa, bihar, Berazubi estadioan. Eskualdeko 150 ikasletik gora elkartuko duen kirol topaketa. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat.

Tolosaldeko 11 eskolak hartuko dute parte II. Topaketa hauetan: Adunako eskola, Albizturkoa, Alkizakoa, Altxoko Imaz bertsolaria eskola, Asteasuko Pello Errota, Berrobiko San Andres eskola, Bidegoiango Txinkorta, Ikaztegiako eskola, Lizartzako Juan XXIII.a eta Zizurkilgo San Millan eskola, hain zuzen ere. Gabiriako Balentzategi eskolakoak ere izango dira Berazubín. Guztira, 8 eta 12 urte bitarteko 180 ikasle inguruko elkartuko dira kirol festa horretan.

Baina kirola praktikatzear gain, topaketa elkar ezagutze-ko eta ondo pasatzeko izan da-dila ere nahi dute antolatzaileek. «Ikasleen arteko harremanak bultzatzea, kirol praktika

EGITARAUA ▶



Ikasleentako baten marrazkia, topaketari buruz. HITZA

- 10:00. Ekitaldiaren hasiera eta taldeen antolaketa.
- 10:15. Proben hasiera.
- 10:35. Kirol aldaketak.
- 11:00. Atsedena.
- 11:15. Probei ekingo diete berriro.
- 11:35. Kirol aldaketak.
- 12:00. Topaketen amaiera.

ESKOLAK ▶

- ▶ Adunako eskola.
- ▶ Albizturko eskola.
- ▶ Alkizako eskola.
- ▶ Altxoko Imaz bertsolaria.
- ▶ Asteasuko Pello Errota.
- ▶ Berastegiko Muñagorri.
- ▶ Berrobiko San Andres.
- ▶ Bidegoiango Txinkorta.
- ▶ Gabiriako Balentzategi.
- ▶ Ikaztegiako eskola.
- ▶ Lizartzako Juan XXIII.a.
- ▶ Zizurkilgo San Millan.

sustatzea, eta Tolosan antolatzen diren Olinpiadetan parte hartzea animatzea» dira, hain justu, topaketen helburuak. Ikasle guztien arteko harremanak bultzatu nahian, ikasle guztiak nahastu eta hainbat taldetan banatuko dituzte, probei hala ekiteko; sei ikaslek osatuko dute talde bakoitza, eskola desberdinetako bina ikaslez, hain zuzen ere.

Denetarik probak

Era guztietako probetan lehiatuko dira parte-hartzaileak: luzera jauzia, pisu jaurtiketa, sokatira, pilota eta erreleboak —lokots bilketa, 60 metro korrika, zaku karrera, laguna bizkar gainean eraman eta pista-reen buelta bukatzea dira erreleboetan egin beharreko probak—. Erreleboak atletismo pistan egingo dituzte, jaurtiketak eta jauziak estadioaren erdian, eta pilota eta sokatira, azkenik, frontoian.

10:00etan ekingo diote, bihar, Eskola Txikien II. Topaketari, Berazubín. 11:00etan atsedean hartuko dute, eta 12:00etan amaituko da jai.

Tolosaldeko Eskola Txikiek Berazubi estadioko arduradunen eta Eroskiren laguntza jaso dute prestaketan.

GUTUN@K ▶



Bere lekutik ia mugitzen ez den udaltzaina

2005eko apirilaren 18an, HRTZA egunkarian, Iratxe Etxebestek idatzitako artikuluan egia ez den zerbait azaltzen da. Artikuluan, Berazubira botoa ematera joan zen pertsona baten abentura kontatzen da. Tartean, bertan zegoen udaltzainaren portaera salatzen da. Hemen sortzen da arazoa, Etxebeste andreak idatzitakoa eta gertatutakoa bat ez datozelako.

Egun hartan, artikuluan aipatutako Amenabarro andreak baino lehen beste askok izan zituzten arazoak bozka lekuan: edadeko jendeak, elbarrituek, gurasoek ume-kotxeekin... Bertan zegoen udaltzaina botoa emateko lekua zaintzeko zegoen, baina nor-

bait arazotan ikusiz gero, bere laguntza emateko prest zegoen eta horrela egin zuen zenbait kasutan. Amenabarro andrea Laskorain ikastolako egoitzan sartu zuten eta botoa ematen zen gelaren sarreran izan zuten arazoa, bi orriko ate batean, orri bakarra baitzegoen irekita. Gurrpil-aulkia bultzatzen zuenak udaltzainari galdetu zion atea nola zabaltzen zen eta, udaltzainak, atea zabaltzen saiatu eta gero, esan zion ez zekiela. Zorritzarrez, Tolosako udaltzain guztiak ez dira *Mc Giver*, baina Amenabarro andreak atzetik zetorren beste pertsona bat gai izan zen atea zabaltzeko, eta Amenabarro andreak, bi edo hiru minutu itxaron eta gero, botoa eman zuen.

Idatzi honen bidez, gauzak nola gertatu ziren argitu nahi dugu, eta ez dugu inongo eztabaidatan sartzeko asmorik.

M-28 UDALTZAINA ▶ TOLOSA

XAKEA ▶

Tolosa-Ibarra taldea, 2. Gipuzkoako Ligan

Barojak, Bustamantek eta Moreauk irabazi zuten azken partida, Marlaxkaren aurka



Tolosa-Ibarra xake taldeko Baroja (erdian), beste hainbat xakelariarekin batera, Erregetako txapelketan. HITZA

L. MONTES

Eskolarteko finalak

Tolosa-Ibarra taldeak bigarren postuan amaitu du Gipuzkoako Liga. Asteburuan jokatu zuten xakelarietako txapelketako azken jardunaldia: 3,5-0,5 irabazi zioten Hondarribiako Marlaxka taldeari.

M. M. Baroja, A. Bustamante eta D. Moreau aritu ziren Tolosa-Ibarrako taldearekin. «Duda-mudako hasiera» izan arren, azkenean sasoi betearekin bukatu dute Liga taldekoek.

Datorren larunbatean, bestalde, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren finalak jokatu dituzte eskualdeko xakelariak. Infantiletan, Jokin Mendiak (Hirukide-Tolosa) jokatu du; benjaminetan, Xabier Corredera eta Aitor Alkorta (Villabonako Jesusen Bihotzak) ariko dira; eta alebin mailan, azkenik, Aimar In-txaurren (Samaniego-Tolosa) lehiatuko da.

VILLABONA ▶ KULTURA

'Cocidito madrileño' antzezlan ezaguna ikusteko aukera bihar

Javier Vizcainok idatzitako liburuan oinarritzen den obra Gurea antzokian eskainiko da 20:00etan eta 22:30ean



Hainbat pertsonaia pasako dira eszenatoki gainetik, barre algarak sortzeko asmoz. J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Hain ezaguna egin den *Cocidito madrileño* antzezlan ikusteko aukera izango da bihar Gurean, bi saioetan: 20:00etan eta 22:30ean. *Cocidito madrileño* antzezlanaren izen bereko liburuan eta Javier Vizcainok *Mas que palabras* irratsaioan gidatzen duen atalean oinarrituta dago. Obrak Azul-Colorau antzokian zuzen-zuzenean egiten den irratsaioa du abiapuntu, irratiko *Cocidito* antzundako bitxikeriek bideratuta.

Euskarak, homosexualitateak, ikastolek, elizak, euskal kirolak eta euskal politikariek zeresan ugari emango diote Madrileko sasi-kazetariari. 70 bat pertsonaia pasatuko dira gaur egungo komeria bizi eta barregarri honetako eszenatik. «Gaur egun komunikabide batzuek Euskadi, Euskal Herria, Vascongadas edota EAERI buruz ematen duten ikuspegia islatu nahi dugu, betiere umore ukitua ahaztu gabe», azaltzen dute antzezlanaren arduradunak.

Glu Glu produktorak moldatu du antzerkirako *Cocidito madrileño* liburu. Eloi Beatoren zuzendaritzapean, bost aktore aritzen dira eszenatokian pertsonaia guztiak egiten: Galder Perez, Ramon Castro, Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia eta Josean de Miguel.

IRURA ▶

Jubilatuen ekitaldiak datozen egunetan

Mar adentro filma eskainiko dute Zaharren Biltokian. Luzea delako bi saiotan emanango dute. Lehenengo gaur bertan izango da eta bestea hilaren 26an, asteartean. Saioak 17:30ean hasiko dira. Bestalde jubilatuek Iratxera irteera antolatuko dute maiatzaren 19rako. Goizeko 8:30ean izango da irteera Aizpurua jatetxetik. Iratxen hamaiketako eta bazkaria egin ondoren bertan bingoa, opariak eta dantzaldia egingo dira. 21 euro kostatzen da eta apirilaren 26an aukera izango da izena emateko 17:00etatik 18:00etara.

IRURA ▶

Mus txapelketaren kanporaketak bihar Trinketean

Maiatzaren 13tik 21era izango da aurten Irurako Kultur Astea. Ekitaldi sorta bat antolatu dute eta horien artean mus txapelketa. Finala maiatzaren 14an jokatuko bada ere, aurretik ligaxka egingo da parte-hartzaileen artean. Bi talde egin dira, bakoitza sei bikotez osatua eta bihar egingo dituzte lehenengo bi kanporaketak, Trinketean, 22:30etik aurrera.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Haurrei, gazteei eta jubilatuei zuzendutako antzezlanak gaur

III. Antzerki Asteak bide erdia egin du; haurrak protagonista izan ziren atzokoan

I. GARCIA

Zizurkilgo III. Antzerki Asteak aurrera darrai. Azken bi egunetan guraso eta haurrentzako antzerkiak izan dira. Asteartean, *Ugaztun baten nahiak* obra eskaini zuen Teresa Lopez de Muniain aktoreak. Antzezlan bizi eta zorrotza izan zen, ikusle goaren partaidetza zuzenarekin. Atzo antzerki tailerreko bi taldeen emanaldia izan zen. 5 eta 6 urteko haurrek *Koloreen mundua* eskaini zuten eta 7-8 urtekoek *Ikasle berria* izeneko. Zizurkilgo antzerkirako haurrobia badela erakutsi zuten.

Gaur hiru saio egingo dira: 10:45ean, Pedro Mari Otaño eta Jesusen Bihotza eskolekako



Ugaztun... obraren une bat. I.G.

haurren emanaldia, Atxulondo kultur etxean; 15:00etan, *Mi-marte*, Villabonako Gurea aretoan eta 17:00etan, Marsel magoa izango da Atxulondo kultur etxean.



Txikiaren festa batean amaitu zuten beren antzezlanak. I. GARCIA



Antzerki borobila egin zuten antzerki tailerreko nagusiek. I. GARCIA

ANOETA ▶

Koadrila Eguna antolatzeke lehen bilera udaletxean

Herriko festetan egingo den Koadrila Eguna antolatzeke bilera deitu dute gaur 20:00etan. Udaletxean izango da eta lehenengo bilera izango da.

ANOETA ▶

Gazteen Dantzarako lehen entsegua etzi

Gazteen Dantza antolatu dute herri borondatearen aldeko Festa Alternatiboaren Batzordeko kideek. Gazteen egunetan egingo da ekitaldia eta dagoeneko izena eman nahi dutenek zerrrenda Itzuli tabernan dute. Lehenengo entsegua etzi, larunbata, egingo da 18:00etan, Gazteetxean.

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

Eskulanekiko grina belaunaldietan zabaltzeko ikastaroa

Ekaina bitartean eskulan ikastaroa emango du Mari Karmen Aranburuk asteazkenero udaletxeko gizarte gela

NOELIA LATABURU

Eskuekin lan egiteko artean jakintzak eskuratzeko aukera dute Baliarraingo biztanleek, asteazkenero eskaintzen den eskulan tailerrari esker. Urte hasieran hasi zen Baliarraingo Udalaren ekimenez tailer hau eta ekaina bitartean udaletxeko gizarte gelara hurbiltzen direnak eskulanak egiten ikasten ari dira. Era guztietako eskulanak lantzen dituzte bertan, pintura, hari lanak egitea, bitxiaren eraketa eta egurra lantzea, esaterako. Norberak gustuko duen alorra aukeratzen du eta hori ikasten bai eta hobetzen saiatzen dira. Mari Karmen Aranburu eskulan ikastaro honen irakasleak azaldu duenez, bere lana «tailerreko partaideei nire ezagutza zabaltzea da eta, ahal dudan heinean, laguntzea».

Guztira zortzi dira tailer honetan parte hartzeko izena eman duten baliarraindarrak. Ikasteko gogo handia erakusten dutela aitortu du bere irakasleak. Halaber, ikastaroaren



Herriko gazteek ere erakusten dute eskulanekiko zaletasuna. N. L.

bukaeran ikasleen lanekin erakusketa bat burutzea polita izango litzatekeela esan du Lazkaokoak, baina hau «Udalaren esku geratzen da».

Soilik emakumezkoak

«Denak emakumezkoak dira, baina adin guztietakoak», esan du Aranburuk. Halaxe da bai; herriko belaunaldi ezberdinak batzen dira eskulanekiko grina azaltzeko. Bi gaztetxoek bufundak eta bitxiak dituzte gustukoak, Aranbururen esanetan. Helduetan, berriz, hari lanak, pintura eta egurra lantzea dira praktikatuak. Hila-beteak aurrera joan ahala, aurrerapen garrantzitsuak egiten dituzte ikasleek. Baina ez al dute gizonezkoek eskulanetan aritzeko zaletasunik? Pena da denak etxean geratzea, parada ederra baitute tailer honetan.

MARI KARMEN ARANBURU ▶ IKASTAROAREN IRAKASLEA

«Betidanik izan dut eskuekin lan egiteko joera eta irrika berezia»

Duela 12 urte hasi zen Lazkaon bizi den zaldibiar hau eskuekin lanean sor daitezkeen bitxiak eta altxorak nola egin irakasten.

Nola erabaki zenuen honetan lan egitea?

Betidanik izan dut eskuekin lan egiteko joera eta irrika berezia eta hau besteei erakustea polita iruditu zitzaidan.

Egin daitezkeen lan guztietatik zein duzu gustukoena?

Ikasleak gustura egiten duenean, beraiekin batera egin ahal ditudanak ditut gustukoak.

12 urte: jende askok ikasiko zuten zure eskuetara begira.



NOELIA LATABURU

Hamaika ikasle izan dut urte hauetan zehar; gehienbat Tolosaldeko herrietan aritzen naiz gaur egun. ◀



Bakartxoren oinei jarraituz

ALTZO ▶ Bakartxoren zapatillek 60 lagun inguru bildu zituen herenegun arratsaldean Ertotxen. Etxeko txikienek ametsen munduan murgiltzeko aukera izan zuten ordubete iraun zuen Joseba Ramirezen txontxogilo ikuskizunean. Imanol Urbietara zarauztar musikagilearen ipuin batean oinarritutako lan honek hainbat gai landu zituen, etxekoan arteko harremanak, lana, zabortegia eta birziklatzea, esaterako. Bakartxori etxerako bidean gertatutakoaren berri eman zuen ipuin kontalariak. HITZA

AMEZKETA ▶

'Goodbye Lenin' zine zikloaren azken emanaldian

Gaur Amezketa zine zikloaren azken emanaldia eskainiko da. 21:00etan gela polibalean. Aste honetako filma *Goodbye Lenin* izango da. Astero bezala, txokolata eta bizkotxoak banatuko dira. 2002. urteko filma honen zuzendaria Wolfgang Becker alemaniarra da. Matasunak nolako indarra izan dezakeen erakustez gain, hedabideen, komunikazioaren eta manipulazioaren indarrak ere jabetzeko aukera izango dute filma hau ikustera gela polibalean gerturatzeko direnak.

ALBIZTUR ▶

Baserri batean txakurra lapurtu zuen epaitu dute

Herriko biztanle bati sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote, Albizturko baserri batean txakur bat lapurtzea egotzita. Lapurreta hau 2001. urteko azaroan jazo zen, Miguel Anjel A. J. hernaniarrak lau urte zituen *Es-pagneul Breton* arrazako txakur bat hartu zuenean. Txakurra Albizturko baserri baten atarian lotuta zegoen eta egun bat beranduago berreskuratu ahal izan zuen bere jabeak. Aipatutako kartzela zigorra 1.080 euroko zorraren truke kitatzeko aukera du epaituak.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 800 enpresa, ikastetxe, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

JOXE MARI GARMENDIA ▶ ECUADORREN MISIOLARI

«Jendearen bizi-poza handitzea da gure erronka handiena»

Ekuadorren misiolari ari da apaiz ibartarra; proiektu garrantzitsu batekin ari dira orain lanean eta bertakoen bizimodua hobetuko duenaren itxaropena dute

ÍNIGO TERRADILLOS

1944. urtean jaio zen Joxe Mari Garmendia Ibarako Zaldunen. 12 urterekin seminariora joan zen. Venezuelan izan zen, apaiz eta sekular talde batekin, garai hartan ohitura baitzen apaiztu aurretik pare bat urterako misioetara joatea. Handik etorri ondoren, 1972an apaiztu eta urte batera Venezuelara joan zen berriro. 10 urte egin zituen han eta 1981ean itzuli zen Ibarrra. 1982an Oartzunera joan zen. 13 urte egin zituen bertan apaiz eta 1995ean Ekuadorre- ra joan zen misioetan. Santa Rosan eman ditu azken urteak eta bi urtetik behin tarte bat egiten du bere jaioterrian egun batzuk igarotzeko. Ibarra dabil egunotan Garmendia eta bere misioetako jardunaren inguruan mintzatu da HITZAREKIN. **Venezuelan lehendabizi eta gero Ekuadorren aritu zara azken urteetan misioetan. Zein izan da zure lana?**

Lehenengo lana lekua ezagutzea izaten da. Bertako egoera ondo ezagutu behar duzu zertan lagundu jakiteko. Apaiz lanak egiten nituen Venezuelan. Eta horretaz gain, oraindik ere jarraitzen duen eta gazteen formakuntza bultzatzen duen proiektu batean laguntzen nuen. Ekuadorren, berriro, oinarriko kristau elkarteak sortzea izan da eginkizun garrantzitsuetako bat. Elkarteen lana inguruan ikusten dituen beharrei irtenbideak ematea litzateke. Kristau elkartearen lehen zeregina bizi aukerak eskaini eta bizitzen laguntzea da, bestela, fedeak ez luke baliorik izango.

Ederki ezagutuko duzu, nos-



HITZA

ki, leku hauetan bizi duten egoera gogorra.

Ekuadorren, Santa Rosa bailaran egon naiz azken urteotan. 80.000 biztanle inguru bizi dira han. Oso gaizki bizi dira. Pobrezia handia dago eta gero eta handiagoa gainera. Jende guztiak, edo horretarako aukera duenak ihes egin nahi du beste lurralde batera egoera hobea baten bila. Lurralde honek onera egitea oso zaila ikusten dut.

Bueltarik ez du beraz, bertako egoerak.

%80ko pobrezia dago Ekuadorren, eta horietatik erdia miserian. Merkataritza Libreko Ituna ari dira eztabaiatzen une honetan. Firma bilketa egiten ari dira eta kopuru handia lortu ezker herri galdeketa egingo da herritarrek nahi duten ala ez ikusteko. Baina Amerike-

tako Estatu Batuek jendea engainatu nahi dute honekin, hasteko ez delako dirudien bezain librea, enpresa publikoak pribatizatu nahi dituzte, lurretaz jabetu nahi dute... Egoera txarra bazen, okertu egingo litzateke horrela.

Eta nola bizi dute egoera hau herritarrek?

Autoestima txikia dute, eta gainera ez dute egoerak onera egingo duen esperantzarik.

Esperantza edukitzea eta bai-korrak izatea. Hori helarazten saiatzen al zarete?

Hori izaten da gure lana. Orain proiektu batekin ari gara lanean, eta bizi baldintzak hobetzea eta ondorioz jendearen bizi-poza handitzea lortu nahi dugu.

Zertan datza, zehatz mehatz, lanean ari zaren proiektu honek?

Eusko Jaurlaritzak lagunduriko proiektua da. Aurrera nola egiten duen ikustera bueltatuko naiz berriro Ekuadorre- ra, oso garrantzitsua baita. Bertako garapenean laguntza eskaintzen du proiektuak. Behar nagusiak zein diren aztertzen dira eta horiek jorratzen dira. Baratzeko lanak egiten erakusteko eskolak sortu, aurrezki kutxak sortu jendeak aurretik ikasteko, etxebizitzak hobetu, lanpostuak sortu eraikiko diren enpresa txikietan... eta dena ongi badoa herriaren eta jendearen egoera hobetuko denaren itxaropen sendoa dugu.

Gaur egungo elizaren jarrera nola ikusten duzu?

Beste jarrera irekiagoa hartu behar du gaurko elizak mundu honek dituen razoei aurre egin ahal izateko.

IBARRA ▶

Karibear festa egingo dute bihar Gaztetxean

Apirila Gorriaren ekitaldien barruan, atzo, Ainhua Etxaidek *Langileak gizarte inperialista* hitzaldia eskaini zuen. Bihar, berriz, Karibear festa antolatu du Ibarako Formakuntza eta Eraldaketarako bilguneak. Mojitoa, salta, jokoak, herri giroa, *reggae*-a, dantza, ligotea... denetarik izango da Gaztetxean 22:30etik aurrera. Eta igandean, zine-kluba izango da 17:00etan Gaztetxean bertan. Kasu honetan *Pantera beltzak* izango da ikusgai, AEBetako Pantera beltzen historia pelikula, alegia.

BELAUNTZA ▶

Liburuaren Eguna ospatuko da bihar txotxongiloekin

Belauntzako Udal Liburutegiak Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko txotxongiloen bidezko ipuin kontaketa bat antolatu du biharko. Egile lanak Enkarni Genuak egingo dituen txotxongilo emandialdi elkartsuna aldarrikatu nahi du; argi beltzeko efektuekin, diapositibekin, kutxa eta beste ezusteko batzuekin gure hainbat kezka mintzatu da obra hau. Eman era gero izango da gaia eta bihar 17:30ean Belauntzako Kultur Etxean izango da ikusgai.

ZUZENKETA ▶

Igandeko hauteskundeetan Gaztelun izan ziren emaitzak gaizki ateratzen herenegun HITZAN. Astelehenean ateratakoak ziren zuzenak, hau da: EHAK-k 46 boto, EAJ-EA-k 41, EB-k 9, Aralarrek 1 eta beste guztiak bat ere ez. Barkatu sortutako eragozpenak.

BOTUA EMATEKO

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Telefonoz: 943 65 56 95

Botuaz gain, datu pertsonalak behar ditugu.

Irabazleak, apirilaren 24 igandeko egunkarian

Argazkiak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta



Apirilak, 22 ostirala,
botua emateko
argazki azken eguna

hitza lehiaketa

LEITZA ▶ KULTURA



Idazlanak. Idazleak egin behar du sorkuntza lana. Hauxe da lehen urratsa. Joseba Sarrionaindiaren eskuizkribua, jatorrizkoa, dago ikusgai: idazleak orri txuritan eskuz idatzitako hainbat orri dira. J. A.



Fotolitoak. Eskuz edo beste formato batean idatzitakoa edo marraztutakoa liburuko paperera igarotzeko, kolore horia, gorria, urdina eta beltzari dagozkion plastikozko orriak sortu behar dira. J. A.



Jatorrizkoa-fotolitoak-inprimatua. Luis Luziano Bonaparteren Euskalkien Mapa erabili dute urrats hori erakusteko eredu gisa. Hau izan omen zen Nafarroako Gobernuak ezarritako debekuaren beste aitzakia: Euskal Herriko mapa azaltzea. J. A.



Koadernaketa. Fotolitoekin, inpresio-xaflak sortu eta paperean atera ondoren, orri horiek itxuran jartzea da azken urratsa, irakurleari aialtzerako. J. A.

‘Liburu bat egiten’ ikusiz, eta ukituz ere

Gaur da erakusketara joateko azken eguna; hormirudiekin, materialen lagin eta egileen jatorrizko idatziak ere badaude

JAIONE ASTIBIA

Leitzako udaletxeko batzar aretoan, 2. solairuan, dago ikusgai *Liburu bat egiten* erakusketa, aste honetan zehar. Bihar arte egotekoa bazen ere, azkenean, gaurkoa izanen du atzena: 18:30etik 20:30era egonen da zabalik, goizez ikustaldi gidatuak ere izanez.

HITZA atzo izan zen Pamiela argitaletxeak prestatutako erakusketa horretan, Amazabal

Institutuko en ikustaldi gidatuaz baliatuz. Erakusketa hau «berezi eta ikusgarri» egiten duten hainbat ezaugarri dituela eman zuen aditzera gidariak: liburu bat egiteko bete beharrezkoak diren zazpi urratsak, alegia, egileak idazlana idazten duenetik hasi eta irakurlearen eskuetara iristen den arteko prozesu osoa erakusten duten hogeita bost hormirudiz hornituta dago erakusketa, baina ez dira irudi hutsak. Izan ere,

hauetako asko, dagokien urratsean kokatuta, liburu horien egileek beraiek egindako, hasierako eskuzko idazlanen, zuzenketen, ilustrazio edo marrazkien jatorrizkoak baitira. Horrela, Sarrionaindiaren *Izki-riaturik aurkitu ditudan ene poemak* lanaren jatorrizko orri batzuk ikus daitezke, idazlearen beraren letraz idatzitakoak, bere tatxoi eta guzti (hau izan omen zen Nafarroako Gobernuak erakusketa hau debe-

katzeko erabili zuen aitzakieta-ko bat, gidariak azaldu zuten; edo Atxagak eta Oteizak proben gainean egindako jatorrizko zuzenketak, bai edukienginguruan, testuak bere horretan berridatziz edo idazlanaren beraren itxurari erreparatuz egindako markak; edo gero liburuaren barranean argitaratutako ziren marrazkien jatorrizkoak... Ikusgarriak dira guztiak.

Baina, gainera, prozesu horretan guztian erabiltzen den hainbat materialen laginak ere hortxe daude, eta ukitu eta eskuartearen erabil daitezke. Hain zuzen ere, hauxe izanik beste ezaugarri berezigarria, «ez ukitu» txartela ezin errespetatuz ibili beharrean, «honetakoan, ukitzeko daude hauek guztiak: fotolitoak, paperak, inpresio-plantzak, orrialdeen pleguak...», zioen.

Egia eta ikusi nahiz gero, gaur da azken aukera.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiburri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irrati: 943 69 80 38

▶ Karrape irrati: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte. Korreo kalea 20 (Tolosa). 943 676 013

Erbilt: Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Igeltseroa. Mutil bat behar da, igeltsertzako ofiziala, 2.

mailakoa. Deitu: 615 74 86 61.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko apirilaren 21, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abuztegia, Adura, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Amadeite,
Aranda, Araso, Balamán, Ebalantza, Erastegi, Berroji, Etxuan, Herrialde,
Ibarra, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo,
Zuzari Besterik: Leizalaldeko Euskararen Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza
Kultura Salla

Eusko Jaurjaritza
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

09

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Zizurkil. III. Antzerki Asta:
Pedro Mari Otaño eta
Jesusen Bihotza eskolako
haurren emanaldia
Abulondo kultur etxean
10:45ean; Mimarte
Villabonako Gurea antzokian
15:00etan eta Marsel
magoa Abulondo kultur
etxean 17:00etan.

DEIALDIK

Asteasu. Mahai tenisa
(hastapen iharduera
frontoian 17:00etatik
18:45era.

Ibarra. Marta Fernandez
hitza hizkuntzaren
garapenez 18:30ean
Uzturpe Haur Eskolan.

Tolosa. Tolosa Kup-en izena
emandakoen bilera
20:00etan Kultur Etxean
arauak komentatzeko.

Tolosa. Datozen
sanjoanetan Bordondantzan
ateratzeko entsegua
ostegunero 20:30ean dira,
Igarondo igerilekuan.

Tolosa. Sarria-Orozko
(Bizkaia) mendi irteera
antolatuta du Alpino Uzturrek
iganderako. Irteera
Gorosabeletik. Sei orduko
ibilaldia da. Usategieta
(1.188m), Odoriaga
(1.245m) eta Ubieta
(1.115m) mendiak igoko
dituzte. Izen-ematea, Gudari
5, behean. 943 65 27 89.

Tolosa. 57ko kintoen festa
igandeak: 11:30ean meza
Arrameleko kaperan eta
ondoren bazkaria Sausta
jatekian. Izen-ematea: 943
65 54 53.

IKASTAROK

Tolosa. Hainbat mintegi
antolatuta ditu KZguneak
apirilean 18:00etatik
20:00etara: Eustat 25ean;
Kutxa I eta II 26an; eta
Outlook 28an. Izen-ematea,
bertan.

Tolosa. Ikastaroak
Amarozko KZgunean,
17:00etatik 19:00etara:
segurtasun kopiak 20an;
ekipo informatikoak babestu
21ean; BBVAko operazioak
22an; buletinak tramitatzeko
26an...

ZINEMA

Amezket. *Goodbye Lenin*
filma gela polibalentean
21:00etan.

Parkea helduentzat

VILLABONA ▶ Adineko jendeak bere ariketa fisikoak egin ahal izateko parkea jarri berri dute Txermin auzoan; erabiltzea eta errespetatzea eskatu dute



Eskumuturra eta gorputzeko beste atalak lantzeko eta indartzeko aparatoak daude parkean. IMANOL GARCIA

JOXEMI SAIZAR

Helduen jolasparkea? Horrelaxe erantzun nion informatu zidanari. Bada, bai. Halaxe da. Gauza bixia da. Hemen inguruan inon ez dagoena. Eta Villabonan jarri berri dute. Duela aste pareta. Udaletxera jo eta hango teknikariek eman digute parke berritzaile honen berri. Txermin auzoan dago kokatuta, ju-



Bizikleta antzeko batzuk ere badira, pedalak emateko. I.GARCIA

bilatuaren egoitzaren ondoan. Bospasei aparato daude hainbat eragiketa egin ahal izateko: bizkarra, gerria, eskuak eta bestelakoak lantzeko eta indartzeko jokuak dira. Bizikleta antzekoak, uztaiak kable bate-tik zintzilik, barrak, diskoak eta horrelako aparatoak daude horretarako. Bitxia benetan.

Beste edozein pertsonak bezala —edo gehiago— adineko-erikomeni zaie ariketa fisikoa egitea. «Gimnasio batera joateko disziplina eta ohitura ez dutenez, aukera hori kalean, denen eskura jartzea pentsatu dugu», diote udal teknikariek. Jubilatuen elkarteak ordezkariek hitz egin omen dute eta adineko jende guztia animatu nahi dute parke berria erabiltzera eta errespetatzera.

Egun hauetan oraindik oso erabiltzaile gutxi ditu. Eguraldiak ere ez du asko lagundu, egia esan.

Badute non denbora pasa hemendik aurrera Villabonako eta inguruko adinekoek. Txiki-erikien inbidiarik ezin dute izan, beraientzako jolasparke berezia, pentsa. «Eta haurrak joaten badira jolastera, zer?», galdetuta, «oso ondo, ez dago arazorik», erantzun dute.

AGURRAK ▶ Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Alain eta Lorea. Atzo Alaine 4 urte eta Loreak gaur urtebete. Zorionak gurasoen eta amonen partetik.



URTE ASKOAN

Garbiñe Zubillaga Saizar (Berastegi). Gaur 24 urte. Zorionak eta egun ona pasa familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Eñaut Gurrutxaga (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak ebeko guztien partetik.



URTE ASKOAN

Martin Jauregi (Ikaztegieta). Zorionak atzoko partez eta muxu handi bat gure pirata bikitari.



URTE ASKOAN

Garbiñe Zubillaga Saizar (Berastegi). Gaur 24 urte. Muxu handi bat eta horrela segi Unairen partetik.



URTE ASKOAN

Xuban Ubeda Arribilaga (Ibarra). Atzo urtebete. Zorionak Aintzane eta Perikoren partez.



URTE ASKOAN

Maria (Bedaio). Zorionak eta muxu handi bat amona Mariari Eñaut, Amaiur eta Aitorren partetik.